

[www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

**2015**

**TXOSTENA  
UNESCO ETXEA**

## RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA ARANZAZU ACHA ZUZENDARIA



UNESCO sortu zeneko 70. urteurrena ospatzeko ekitaldia eta Euskal Herriko UNESCO Sarearen aurkezpena. Gasteiz, Eusko Legebiltzarra. 2015eko martxoak 16

UNESCO ETXEA-CENTRO UNESCO DEL PAIS VASCO (1991-2016) elkartearen sorreraren 25. urteurrena ospatzen ari gara. Urte hauetan guztietan ilusioz, konpromisoa eta ausardiarekin lan egin dugu gizarte bidezko, baketsu, iraunkor eta solidarioago baten alde. Horretarako, programa eta hitzarmen ugari jarri ditugu abian, gizarte gisa munduko debate eta erronketan parte har dezagun, gauzak modu engaiatu, kritiko eta arduratsuan eraikiz. 25 urte hauetan martxan jarritako askotariko ekimenen artean, gure lanaren erakusgarri iruditzen zaizkigun batzuk nabarmendu nahi ditugu, lagungarriak baitzaizkigu etorkinari sendo, baikor eta ekinez aurre egiteko.

1. UNESCO Etxearen lanaren xede nagusia giza garapen iraunkorra bultzatu eta sustatzea izan da, jakintza, giza eskubideen errespetua eta bake-kultura oinarritzat hartuta.
2. UNESCO Etxeak munduko ideiak, debateak, proiektuak eta erakundeak ekarri ditu Euskadira, eta, horri esker, euskal gizarteak NBEren eta UNESCOren aktiboki parte har dezan sustatu du gure elkarteak.
3. UNESCO Etxeak ahaleginak egiten ditu Euskadik NBErekin harreman aitortuak eta parte-hartze aktiboa izan ditzan.
4. Eusko Jaurlaritzak finantzaturako eta UNESCO Etxeak kudeatutako UNESCO Bekak programari esker, 180 gaztek urtebetez edo gehiagoz UNESCO munduan zehar dituen bulegoetan lan egiteko aukera izan dute.
5. UNESCO Etxeak milaka euskaldun trebatu ditu garapen iraunkorarekin, giza eskubideekin eta nazioarteko ikuspegia izatearekin lotutako hainbat arlotan, eta, horrela, euskal gizarteak lankidetzaren globalaren alde sentibilizatzen lagundu du.

6. UNESCO Etxeak UNESCOrekin lotura duten beste euskal erakunde batzuk bultzatzen ditu eta haiekin elkarlanean dihardu gizarte gisa dugun ondarea sustatu eta babesteko proiektu zehatzak garatzeko, besteak beste esparru hauetan: hizkuntza-aniztasuna, hezkuntza inklusibo eta engaiatua, eremu naturalak eta kultura eta haren adierazpideak.

Ezinezkoa izango zen hori guztia egitea bazkide, profesional, bazkide aholkulari eta laguntzaileen talde handi bat eta tokiko nahiz nazioarteko elkarteekin hainbat hitzarmen izan ez bagenitu, eta, noski, Eusko Jaurlaritzaren eta foru- nahiz toki-administrazioen laguntza eta finantzazioa eta 25 urte hauetan gurekin izan diren hainbat enpresa eta erakunderen babesa izan ez bagenitu.

Guztiei, eskerrik asko bihotz-bihotzez.

Ospakizun hau abagune egokia da, halaber, ORAIN DELA 25 URTE hartu genuen konpromisoa, pertsonala eta erakundearena, berritzeko; konpromisoa NBEren eta UNESCOren balio humanisten alde, gure euskal kultura eta gizarte nazioartekotzearen alde, tokiko eta mundu osoko Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko, eta Demokrazia Unibertsalaren alde. Hori guztia hartzen du barnean NBEk 2015ean onartu zuen GIZARTE IRAUNKORERAKO AGENDA 2030 egitasmoak. Horregatik, aldi berri honi lanean jarraitzeko gogo irmoaz ekiten diogu, gure ahaleginak Euskadiko eta mundu osoko beste erakunde askoren ahaleginekin batuz, guztion helburua baita gizarte baketsu, bidezko, inklusibo eta iraunkorrak eraikitzea.

**Erredakzio:** UNESCO Etxeko lan-taldea ; **Edizioa:** 2016ko maiatzak

**Bilbao:** Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. Tfna: 94 427 64 32  
**Gasteiz:** Zapatari kalea 8. Tfna.: 945 26 41 96

[info@unescoetxea.org](mailto:info@unescoetxea.org) – [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)




## NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduerak-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 127 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

## UNESCO ETXeko ORGANIGRAMA



Gainera:

- 10 Boluntario egoitzan.
- Eusko Jaurfartzarekin 12 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan
- BBK Fundazioarekin 2 bekadun en UNESCOren Pariseko egoitzan.



Irina Bokova, UNESCOren zuzendari nagusia eta Arantza Acha, UNESCO Etxeko zuzendaria. Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Gailurra. New York, 2015eko irailaren 27a

## EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

### EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioko agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBErekin;
- Bere inntzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

### IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, partiarria eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

### BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara:

- Zintzotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharrei dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haien hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondoer jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektio publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

## SARE ETA ALIANTZAK

### UNESCOREKIN eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOREKIKO Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- UNESCOREN kultura-ondare ez-materiala babesteko batzordearen GKE aholkularia.
- Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- UNESCOREN eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.
- UNESCOREKIN Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea.

### Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOREKIN Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Garapen Iraunkorraren Helburuei buruzko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

### ...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Konfederazioa (CECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- UNESCOREN kultura-ondare ez-materiala babesteko konbentzioaren aurrean akreditaturik diren GKE-en Sarea.
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group.
- Local Authorities Major Group.
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- ONGAWA.
- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea (*Pobreziaren kontrako taldea*).

- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarten Federazioa.
- Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokia.
- Munduko Landagunea.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Euskal Herriko UNESCO Sarea.

### ...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Latinoamerikako Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea (*Eragin politikoa taldea*).
- Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarten Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- Euskaltzaindia.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Garapen Bidean.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.
- Soziolinguistika Klusterra.
- Bertsozale Elkarte.
- Enkarterialde.
- Unescocat – Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax Institutua.
- UNESCOREN lagunak Korporazioa, Kolonbia.
- Henri Lenaerts Fundazioa.
- Cascantum Asoziazioa.
- Plataforma 2015 y +.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria . Hiri Sortzaileen Sarea.
- Gazte Enplegurako Hamarkadaren kanpaina. Novia Salcedo Fundazioa.

## UNESCO BEKAK

1997 – 2014

170 PERTSONA


43 HERRIALDE

Kontinenten arabera

AMERIKA	86
ASIA	46
AFRIKA	32
OZEANIA	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>170</b>

Sexuaren arabera

EMAKUMEAK	133
GIZONAK	37
<b>GUZTIRA</b>	<b>170</b>





## PROGRAMAK

Pertsona guztientzako giza garapen iraunkorra eta bake bidezkoa lortuko bada, ezinbestekoa da giza eskubideak errespetatzea. Horiexek dira, hain zuzen, UNESCO Etxearen helburuak eguneroko jardunean. Hori dela eta, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzen dugu aintzat antolatzen eta bultzatzen ditugun programa eta ekimen guztietan. Genero berdintasunaren alde dihardugu UNESCO Etxetik euskal gizarteko eta nazioarteko instituzio esparru guztietan.

UNESCO Etxeak 2015. urtean egin dituen jarduera guztien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

### GARAPENERAKO KULTURA



'Cultural rights and vulnerable groups' Ekitaldi paraleloa.  
Geneva, Suitza, 2015eko irailak 29 © UNESCO Etxea /S. Palomba

2015ean, UNESCO Etxeak kultura-aniztasuna sustatzeko premia defendatzen jarraitu du, ezinbesteko osagaia baita giza eskubideak eta gizarte bidezkoak bultzatzeko. Horrez gain, kultura Agenda 2030ean txertatzearen alde egiten jarraitu du, UNESCOko zuzendari nagusia buru duen kanpainarekin bat eginez.

Testuinguru horretan, International Catholic Centre of Geneva (CCIG) erakundearekin batera, **'Eskubide kulturalak eta talde kalteberak'** jardunaldi paraleloa antolatu genuen Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 30. Batzarrean. Jardunaldi hartan gazteen, herri indigenen eta emakumeen kultura-eskubideen egoera aztertu zen.

GKEen Nazioarteko 1. Konferentzian parte hartu genuen, Kultura Ondare Immateriala Zaintzeko Batzordean akreditatuta.

Generoa, antolaketa-erako ekintza guztietan zeharkako alderdi bat izateaz gain, hainbat jardura zehaztetan landu da, hala nola **'Kultura, Generoa eta Garapena'** ikastaroan. Azpimarratzekoa da, halaber, bigarren Lan Koademoaren argitalpena: **'Ondarea eta Giza eskubideak. Nazio Batuek kultura-ondarearen arloan egindako kultura-ondarearen arloan egindako lana, parte-hartzearen eta generoaren ikuspegiak'**.

Lankidetzazko somenaren bidez ondarrera hurbiltzea da **Aniztasunera Leihoa** lantegien oinarria. Hala, Gasteiz eta Añanako Gatz Harana filmazio-leku bihurtu zen hainbat nazionalitateetako gazte talde batentzat. Gazte horiek, gainera, lehen aldiz jardun ziren ikus-entzunezkoen arloan, eta kultura-aniztasunaren balioa nabarmentzeko tresna gisa erabili zituzten filmak. Ekimen horren osagarri, **'Hezkuntza, Arteak eta Herriarrak'** mintegia antolatu genuen, eta hor azpimarratu zen arte-lengoaiak eta somena ardatz estrategikoak direla gazteei beren garapen pertsonaleko prozesuetan laguntzeko eta mundu global batean heritertasuna sustatzeko. Horixe bera da **Aniztasunak: somen-jolasa** kitaren ikuspegia. Jolas hori zenbait ikastetxetan erabiltzeko aukera izan genuen.

UNESCOn argitalpenetan eta nazioarteko kanpaina eta egunetan parte hartu dugu. Beste hainbat elkarterekin ditugun hitzarmenak sendotu ditugu, bereziki UNESCO Katedren ingurukoak. Horri esker, gizarte- eta kultura-eragile berriak eta sektore pribatuak engaiatu ditugu UNESCO Etxeak egiten duen lanean. Esaterako, Bertsozale Elkartearekin lankidetzan ari gara, bertsolaritzaren analisia eginez kultura-adierazpide bizi eta transmisioa, zaintza eta sustapena indartzeko jarduera egoki gisa.

### BAKE KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK



Ondare Mundiala den Labor Arteari buruzko Autonomien arteko 1. Topaketa  
Camargo, Kantabria. 2015eko apirilak 16 eta 17

2015ean, UNESCO Etxeak gure herrian Bake Kultura eta giza eskubideak sustatzen jarraitu du, prestakuntza- eta gogoeta-jardueren bidez.

Hainbat debate antolatu ditugu, hala nola **Krisi ekonomikoaren eragina giza eskubideetan, Osasuna izateko eskubidea eta giza garapen iraunkorra** (Giza Eskubideei buruzko Bizkaiko VIII. Foroaren izenburua) eta **Memoria historikoa jaso eta transmititzeko nazioarteko lekuak eta ekimenak**.

Bestalde, UNESCOk hezkuntzarako eskubideari buruz egindako **'Hezkuntza Guztiontzat 2000-2015. Lorpenak eta erronkak'** txostena aurkeztu dugu. Dokumentu horretan, **Hezkuntza Guztiontzat** programaren aurrerabidea ebaluatzeaz gain, 2015-2030 aldirako hezkuntzaren munduko agendaren berri ematen da.

Ekitaldi horietan guztietan Nazio Batuetako hainbat erakundetako pertsona garrantzitsu izan ditugu, eta Euskal Herriko hainbat erakundek eta instituzioek ere parte hartu dute.

Prestakuntzari dagokionez, Faridah Shaheed kultura-eskubideei buruzko errelatore bereziak zuzendutako lantegi bat egin dugu: **Iraganaren erabilera: nola idazten eta irakasten den historia gizarte zatituetan eta gatazka osteko egoeretan**.

Horrez gain, bi ikastaro egin ziren: **Giza eskubideen ikuspegia garapenerako lankidetzaproiektuak egiteko orduan** ikastaroa, non euskal erakunde eta unibertsitateetako 20 ordezkari parte hartu zuten, eta Genevan egindako **Human Rights Internship Programme** prestakuntza-ikastaroaren IV. edizioa, Giza Eskubideen Batzordearen 56. Batzarra eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 30. Batzarra zirela bide antolatua. Azken ikastaro horretan euskal erakundetako 7 ordezkari parte hartu zuten, eta Nazio Batuek giza eskubideak babesteko dituzten baliabideei buruzko prestakuntza teorikoa eta hurbilketa praktikoa eskaini zitzaizkien.

Euskal ikastetxeetan giza eskubideak eta bakerako hezkuntza sustatzen jarraitu dugu, batez ere UNESCOri atxikitako eskolen munduko sarean dauden zortzi ikastetxeetan.

## IRAUNKORTASUNA



Nire Mundua. Kaleko ekintza, Nazio Batuen 'My world' kanpainarekin zerikusia duena. Bilbo, Basauri, Gasteiz eta Donostia. 2015eko maiatzaren 4,5 eta 6a

2015. urtea oso garrantzitsua izan da, nazioartean, giza garapen iraunkorraren arloan, eta, horri dagokionez, bereziki nabarmentzekoa da **Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) onartu izana**.

UNESCO Etxeak aktiboki hartu du parte prozesu horretan: Agenda 2030 berriaren eraketan nazioarteko negoziazioen eta aurrerapenen jarraipena egin du, eta akordioaren sinaduraren lekuko izan da. Izan ere, egitasmoa onartu zen irailaren 25eko **Nazio Batuen Gailurrean parte hartu zuen** gure elkarteak. Bestalde, GIHak eskualde gizartearen ezagutzera emateko lanean jarraitu dugu, zabalkunde-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jardueren bitartez.

UNESCO Etxea nazioarteko beste foro batzuetan ere izan da aurten, hala nola **EuroMaB** foroan, Urdaibai Biosfera Erreserbarekin hura nazioartean sustatzeko eta nabarmentzeko duen lankidetzakordioa dela kausa. Foro horretan, hezkuntzari buruzko lantegi bat antolatu zen, biosferako beste bi erreserbarekin batera. Hain zuzen ere, arlo horretan bereziki azpimarragarria da Urdaibaik ondutako Garapen Iraunkorrerako Interpretazio, Ikerketa, Gaikuntza eta Heziketa Plan berritzailea. Biosfera-erreserben arteko nazioarteko lankidetzak ere sustatu da, eta, horri dagokionez, Dyfiko Erreserbak (Gales) eta South Ayrshireko Erreserbak (Eskozia) bisita egin digute.

**Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa** egitasmoa, UPV/EHUren Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrak zuzentzen duena, bultzatu eta hedatu dugu. Bestelako ekimenen artean, azpimarratzekoa da "**Naturaleza y Bienestar en Bizkaia**" dibulgaziozko argitalpena.

UNESCO Etxearen jardueraren parte izaten jarraitu dute, halaber, pertsona guztiak ura eskuragarri izatearen aldeko ekimenek, pobrezia-aren aurkako borroka eta pertsonen garapena sustatzeko ekintzek. Aurten, Nazio Batuek **ura izateko giza eskubidea eta saneamendua izateko giza eskubidea** aldarrikatu dituzte, lotuta egon arren desberdinak diren eskubide gisa. Horren harira, zenbait prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak egin ditugu; besteak beste, honako hauek: Uraren Munduko Eguna ospatzea, Saneamenduaren Munduko Eguna ospatzea eta World Water Week batzarrean parte hartzea.

Informazio gehiago: [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org)

## ORIENTAZIO-ZENTROA, KOMUNIKAZIOA ETA BEKAK



UNESCO Beken Programa. 2015eko promozioa Arantza Acharekin, UNESCO Etxeko zuzendaria eta Begoña Guzmán, UNESCO Etxeko kultura teknikaria.

UNESCO Etxearen **Orientazio, Komunikazio eta Beken Zentroak**, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuak, 1.500 lagun baino gehiagori eman die arreta. Kontsulta gehienek xedea izan da jakitea zer aukera dauden NBE eta UNESCOren lan egiteko eta praktika profesionalak gauzatzeko. Asko izan dira, halaber, informazio eta agiri espezializatuen bila etorritakoak, bai eta UNESCO Etxeak antolatutako jarduerari buruzko argibide-eskaerak ere.

**'Prestakuntza eta enpleguari buruzko buletinak'** argitaratu dira (10, zehazki), eta honako hauek jaso dira buletin horietan: Nazio Batuen Sistemako eta nazioarteko erakundeetako 175 lan-eskaintza; NBE-UNESCOri loturiko hainbat gairen gaineko 55 prestakuntza-aukera; lanean txertatzeko programa eta beketarako 24 deialdi; 34 nazioarteko lehiaketa eta 16 informazio orokorreko edukia. Horrez gain, **laneko orientabide eta prestakuntza pertsonalizatuko zerbitzua** eskaintzen jarraitu dugu, eta Nazio Batuek pertsona bakoitzari eskaintzen dizkioten lanbide-ibilbide posiblen berri eman dugu, horren bitartez.

**BBK-UNESCO Nazioartekotze Bekaren** 2. edizioari esker, bi pertsona gehitu dira Pariseko UNESCOren Egoitzaren Administrazio Zerbitzu Orokorretarako (Administrazio eta Finantza Atalean) eta Kultura sailan hurrenez hurren 6 hilabetetan zehar.

**Eusko Jaurlaritzaren NBE Beka-programari** esker, sei pertsona lanean hasi ziren UNESCOk Afrikan, Asian eta Latinoamerikan dituen bulegoetan. Eta beste sei lagunek beka berritu zuten, bigarren urtea egiteko.

Nazio Batuen arloan espezializatutako agiriaren zerbitzua ere mantendu dugu. 3.600 lan baino gehiagoko dokumentu-funtsa kudeatu dugu, eta hiru **Buletin dokumental** argitaratu ditugu. Dokumentazio zentroak eskaini dituen zerbitzuak honakoak dira: OPAC/Funts bibliografikoa internet bidez ikusteko aukera, Mailegu zerbitzua, Dokumentuak gelan bertan kontsultatzeko aukera, Bilaketa pertsonalizatuak eta Bibliografi buruzko orientabidea.

**Webguneak** 118.482 sarrera izan ditu guztira; 86 albiste argitaratu dira eta gure jarduerari buruzko informazioa emateko 40 mezu elektronikoki bidali dizkiegu 2.000 kontaktu baino gehiagori.

Sare sozialetan ere presentzia areagotu dugu; 1.932 jarraitzaile lortu ditugu **Facebooken**, eta 912 **Twitterren**. 15 bideo berri partekatu ditugu You Tubeko gure kanalean.



## 2015eko ARGITALPENAK [www.unescoetxea.org](http://www.unescoetxea.org) web gunean eskuragarriak

**Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentuen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak:**

- Giza Garapenari buruzko Txostena 2015. Laburpena. Lana eta giza garapena.
- Emakumeen aurrerapena munduan 2015-2016. Laburpena. Ekonomiak eraldatu, eskubideak gauzatzeko.

**Berezko argitalpenak:**

- Ondarea eta Giza Eskubideak. Nazio Batuek kultura-ondarearen arloan egindako lana, parte-hartzearen eta generoaren ikuspegitik.
- Heritage and Human Rights. A participation and gender-based analysis of the work carried out by the United Nations in the field of cultural heritage.
- Ecos de la serpiente. Reflexiones y experiencias para el empleo de los instrumentos del Consejo de Derechos Humanos.



## EKITALDI NABARMENAK

### 1 UNESCO SORTU ZENEKO 70. URTEURRENA OSPATZEKO EKITALDIA ETA EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREAREN AURKEZPENA

Martxoaren 16an, ekitaldi instituzional bat egin genuen Eusko Legebiltzarran **UNESCO sortu zeneko 70. urteurrena ospatzeko** (1945-2015). Ekitaldi horretan, **Euskal Herriko UNESCO Sarea aurkeztu dugu**.

**200 lagunek baino gehiago** parte hartu zuten, kulturaren, zientziaren, hezkuntzaren eta gizartearen arloko Euskal Herriko hainbat erakundek eta elkartetan, bai eta Eusko Jaurilaritzako eta Legebiltzarreko Mahaiko kideek eta Legebiltzarreko taldeek ere.

Halaber, gure artean izan ditugu estatuko UNESCOren beste sare batzuk, bai eta UNESCOren Lankidetzan aritzeko Batzorde Nazionalaren ordezkari gorena ere, hots, Federico Palomera Jn., zeina duela gutxi izendatu baitute batzorde horretako idazkari nagusi. Ion de la Riva Jn., UNESCOren Espainiako enbaxadore ordezkari iraunkor izan zenak 2011. eta 2012. urteetan, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria; Bakartxo Tejería And.; UNESCO Etxeko lehendakaria, Ruper Ormaza Jn.; Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCOren lehendakaria, Sra. Dolors Reig And. eta UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Konfederazioaren lehendakaria Silvia Martínez Cantón And.

### 3 EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREAREN II. TOPAKETA

Urriaren 15a, Euskal Herriko UNESCO Sarearen bigarren topaketa egin zen Euskal Kostaldeko Geoparkean, Debako Agirre Jauregian.

UNESCO Sarea Euskal Herrian UNESCOri lotutako erakunde publiko eta pribatuek osatzen dute: PEA sarera elkartutako ikastetxeak, liburutegi elkartuak, UNESCO katedrak, UNESCO gune eta elkarteak, UNESCOk aitortutako toki naturalak, mundu-mailako ondaredun tokiak eta diseinuaren hiri sortzailea.

### 2 'EMAN MINUTU BAT BERDINTASUNAREN ALDE' LEHIAKETA

VI. edizioan, **berdintasuna** izan zen **'Eman minutu 1 ... alde'** bideo lehiaketako gai nagusia.

Julieta Sagüés, Paloma Romera de Landa y Raúl Calvo, Madrildarrek, irabazi dute UNESCO Etxeak antolatutako nazioarteko ikus-entzunezko lanen 'Eman minutu 1 Berdintasunaren alde' lehiaketaren seigarren edizioa **'Desde el cariño'** lanarekin.

18 urte beherakoentzako 'Ekin eta egin' kategorian Egoitz Albizu, Irati Martin, Haizea Urkiola, Elena Vaz, Maddi Eskisabel, Irene Zaldúa eta Estefania Barra, donostiarrak, izan dira garaile **'Hustu motxilak'** lanarekin eta 'UNESCO Etxea' kategorian DBH 2 -A Gasteizko Carmelitas Sagrado Corazón ikastetxeko ikasleek irabazi dute, **'Por igual'** lanarekin.

Angélica María Távarak, Perukoa, **'Insumisas'** Lanarekin eta Els Agents Joves de Salut de l' Alt Empurdà-k **'¿Somos iguales?'** 'Pikara Aipamena Saria' irabazi dute. Sari honekin, urratzaile, feminista eta ez heteronormatibo gisa nabarmentzen den lana saritu da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza Nagusiak, Getxoko Udalak eta Bilboko Udalak babestu zuten lehiaketa.

### 4 DE LO QUE SE COME SE CRÍA

Abenduaren 4an UNESCO Etxeak Godzilla artista bilbotarrak eta Ana Bidazti kaligrafoak sortutako lanaren bitartez elikadura eskubidea aldarrikatu nahi izan dute kale jarduera honen bitartez. Lana, dimentsio handiak dituena (4x5 metro) Marzana Kaian kokatuta zegoen, La Mercedeko zubiaren ondoan eta "Jaten denaz hezitzen da" goiburupean. Emozionalki garenaz eta jaten dugunaren kalitate emozionalaren arteko erlazioari buruzko zalantzak pizten ditu.



1



2



3



4

## DATU EKONOMIKOAK

## GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak  
www.unescoetxea.org web gunean daude.

## 2015eko Auditoriaren txostena

LKS

LKS AUDITORES, S.L.

C/Alfonso de Ercilla, 10, 2º planta

48901 Leizor (Bizkaia)

T: 94522 74 00

F: 94522 74 01

www.lksauditores.com

info@lksauditores.com

I.N.F.R.M.E. DE AUDITORÍA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES ABRUEVADAS

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO.

Informe sobre las cuentas anuales abreviadas

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas adjuntas de la Asociación UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO que comprenden el balance abreviado a 31 de diciembre de 2015, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad del Consejo de Gobierno en relación con las cuentas anuales abreviadas

El Consejo de Gobierno de la Asociación es responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales abreviadas libres de incorrección material, debida a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales abreviadas adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas están libres de incorrecciones materiales.

Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales abreviadas. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales abreviadas, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales abreviadas, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales abreviadas tomadas en su conjunto.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.

Opinión

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Asociación UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO, a 31 de diciembre de 2015, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

LKS AUDITORES, S.L.P.  
Inscrita en el R.O.A.C. Nº S1054

6 de mayo de 2016

Mª Mercedes Pascual Maestre

6 de mayo de 2016

## Sarrera pribatuen eta publikoen jatorra

Sarrerak guztira 2015	630.641,74	
<b>Ekarpn pribatuak</b>	<b>93.404,34</b>	<b>14,81%</b>
Bazkideak	11.640,00	1,85%
Erakunde pribatuak	55.465,69	8,80%
Beste Batzuk (Norbanakoeh dohaintzak, publizitate balioespena...)	26.298,65	4,16%
<b>Ekarpn publikoak</b>	<b>537.237,40</b>	<b>85,19%</b>
Eusko Jaurilaritza (*)	358.827,18	56,90%
Aldundiak (BFA – GFA - AFA)	83.562,98	13,25%
Udalak (Bilbo, Getxo, Basauri, Donostia, Gasteiz)	37.226,73	5,90%
Atzerri eta Lankidetzta Ministerioa	22.020,51	3,49%
Beste batzuk (lokalen lagapenaren amortizazioa)	35.600,00	5,65%

(\*) Eusko Jaurilaritza:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia 31,08%; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila 7,93%; Hezkuntza Sailburuordetza 5,71%; Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza 6,93%; Karpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia 5,22%

## Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2015	626.889,07	
Orientazio-zentroa, komunikazioa eta bekak	170.985,70	27,28%
EGKE Programa	50.199,53	8,01%
Iraunkortasuna Programa	174.837,94	27,89%
Garapenerako Kultura Programa	66.383,00	10,59%
Bake Kulturaren eta Giza Eskubideen Programak	38.281,78	6,11%
Nazioarteko harremanak	27.426,10	4,37%
Kudeaketa orokorra	63.175,03	10,08%
Lokalen amortizazioa	35.600,00	5,67%

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2015ean laguntza eman baitigute bake-kulturaren eta giza eskubideen alde lanean jarraitzeko.

## Instituzioari diruz laguntzen diote:

- Laboral Kutxa.
- Irizar S. Coop.
- Grupo Ulma S. Coop.
- Negobide Círculo Empresarial.

## Egoera-balantzea 2015

AKTIBOA	2015
Aktibo ez-zirkulatzailea	157.829,52
Aktibo zirkulatzailea	449.773,83
<b>Aktiboa guztira</b>	<b>607.603,35</b>

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2015
Ondare garbia	481.490,42
Fondo propioak	38.097,75
Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak	443.392,67
Pasibo zirkulatzailea	126.112,93
<b>Ondare garbia eta pasiboa guztira</b>	<b>607.603,35</b>

## UNESCO Etxearen egitasmoetan laguntzen dute:

- BBK Fundazioa.
- Electra Vitoria S.Coop.
- Consorcio de aguas Bilbao Bizkaia.
- Go Basquing.
- Bertoazole Elkarte.

## Iragarriak txertatzeko doako lekuak uzten dituzte:

- Diario El Correo.
- Noticias de Gipuzkoa.
- Diario de Noticias de Álava.